


Irailaren 18an, palmera monteroko 2. Aretoan, 18:00-19:00



Aurkezten dizugu ekimen artistiko, hezitzaile eta umoretsu bat: txirringaz munduari bira (4 urte, 46.000 kilometro, 32 herrialde) ematearen inguruko antzezlan bat, umeentzat egina eta protagonistak berak antzeztua.



Eneko Etxebarrieta:

Lehen hezkuntzako irakaslea, Andoaingo Bideo eta Zinema Eskolan trebatua, argazkilaria, bidaiaria... Bidaia eta antzezlanaren protagonista.



Eneko eta Faustinak, bere txirringak, (txirrinaren bidez hitz egiteko ahalmena duenak) haurrak telebista utzi eta beraiekin

munduratudaitezen gonbidatzen dituzte: mundua pedalei eragiten ezagutzeko.

Elkarrekin ezinbesteko gauzak alforja edo aneketan sartuko dituzte, Tibetera igo eta bertan tibetar familia bat eta beren yak-ak ezagutu, Txinako harresiaren ondoan kanpatu eta gaua pasatu, Australiako basamartua zeharkatu, aborigeneekin solastu, munduko hainbat bazterreko haurrak ezagutu... eta abentura eta esperientzia ugari bizi eta gero, etxera itzuliko dira ideia eta ikasketa berriekin.

Musika Bingen Mendizabalena da, eta hurrek izango dituzten esperientziak zabaltzea du helburu.

Bidaia bestelako osagaiek ere hartzen dute parte, hala nola, txirringa (aurpegiarena egiten duen haur kasko begidun baten bidez gizatiartua) eta Enekok -plataforma baten gainean ezarrita baitago- pedalei eragiten diona, anekak eta beren edukia, kanpin denda ... eta jakina, liburuak, antzezlanaren osagarri garrantzitsuak, haiek izango dira mundua ezagutzera eta gozatzera gonbidatuko gaituztenak.

Emanaldi honekin, antzerkiaren bidez, eta argazkiak, musika eta hainbat soinu efektu lagun, lortzen da umeek ipuin harrigarri baina erreal bat beraiena balitz bezala bizitzea: munduari bira ematea txirringaz, protagonistak berak kontatuta.

ADINA ETA IRAUPENA

Ekintza 3-8 urteko umeentzat egokitua dago eta 40 minutu irauten du.

Irailaren 19an, Pio XII plazan, 17:00-18:00. Euria eginez gero, Amaia Kultur Zentroko dantza gelan eskainiko da ikuskizuna (Sarrera Aureliano Lopez de Becerra kaletik).

Markel eta mugikortasun iraunkorra

Markel izututa esnatzen da amesgaiztoa izan duelako. Amets egin du mundua erabat grisa zela, koloreak ez zirela existitzen eta pertsona guztiak berdinak zirela. Grisak, ilunak, tristeak eta aspergarriak. Markel lasaitu da amesgaiztoa izan delako. Zer egin dezaket mundua gris bihur ez dadin? - Badakit. Gosaltzen ari dela, esaten dio amari: - Ama, nahiago dut eskolara autoz gehiago ez joan. Oinez joaten bagara, edo bizikletaz, edo garraio publikoan? Horrela ez dugu hainbeste kutsatzen. Horrela ez gara gris bihurtzen. Eta nire klasea gauza bera egitera animatzen badut? Zer deritzozu?

Amak erantzuten dio: - *Idea bikaina iruditzen zait. Maite dut zure ideia Markel. Oso mutil konprometitua zara.* Barrurako eta kanporako ipuin kontalariak. 2 Pertsona ipuin kontalari lanetan, zirku-tonden bat barne.



4 urtetik Aurrera

ARTISTAK: Alboka eta Stravinsky